# JOLASTEN HASTEKO TRENA

EGILEA:
**Nerea Urbizu**

ABESLARIA:
**Lide Hernando (LIHER)**

IRUDIMENA, IRUDIMENA,
JOLASTEN HASTEKO TRENA
IRUDIMENA, IRUDIMENA,
EMAN DIEZADAKEDAN ONENA.

NIRE BURUAN HASI DIRA
FAROLAK FANDANGOA DANTZATZEN,
ZEBRABIDEAK KIRIBILTZEN...
BARRASKILO BIHURTU ARTE.
IRUDIMENA, IRUDIMENA...

NIRE BURUAN HASI DIRA
ZUHAITZAK ADARRAK ORRAZTEN,
SEMAFOROAK LURRA MARGOTZEN...
BARRASKILO BIHURTU ARTE.

I - RU - DI - ME - NA!!!
IRUDIMENA, IRUDIMENA...

NIRE BURUAN HASI DIRA
ESPALOIAK SALTO EGITEN.
BIDEGORRIA SUGE LUZE BAT...
BARRASKILO BIHURTU ARTE.

IRUDIMENA, IRUDIMENA,
JOLASTEN HASTEKO TRENA
IRUDIMENA, IRUDIMENA,
EMAN DIEZADAKEDAN ONENA. (Berriz)

I - RU - DI - ME - NA!!!